Desde el Ayuntamiento se asignará el espacio reservado que se destina a los vehículos de transporte de mercancías, el cuál será convenientemente señalizado al efecto en las inmediaciones. Este espacio sólo se podrá ocupar durante el tiempo imprescindible que dure la carga y descarga de mercancías.

17.2. HOZKAILUAK, BILTEGIRATZEKO ETA PRESTATZEKO GUNEAK

Azokaren beheko solairuan biltegietarako dauden lekuak kasuan kasuko araudi espezifikoan araututako higiene- eta osasun-baldintzak betez erabiliko dira. Jarduera egiten den bitartean eta/edo jarduera amaitzen denean, bai biltegiek bai hozkailuek higiene- eta garbitasun-egoera ezin hobean egon beharko dute. Hala ez bada, leku horren azken erabiltzaileak hartuko du higienearen eta garbiketaren erantzukizuna.

17.2. CÁMARAS FRIGORÍFICAS, ZONAS DE ALMACENAMIENTO Y DE PREPARACIÓN

Los espacios destinados a almacenamiento situados en la planta baja del Mercado serán utilizados siempre cumpliendo con las condiciones higiénico-sanitarias reguladas por la normativa específica correspondiente. Durante el ejercicio de la actividad y/o al término de la misma, tanto los almacenes como las cámaras deberán mantenerse en perfecto estado de higiene y limpieza. En caso contrario, asumirá la responsabilidad de su higiene y limpieza la última persona usuaria de la zona afectada.

17.3. GUNE PARTEKATUAK

Udal merkatuko eta beheko solairuko gune partekatuak plegu honetako **IV. ERANSKINEKO** planoan ageri eta zehazten direnak dira.

17.3. ZONAS COMUNES

Se entenderá por zonas comunes del Mercado municipal y de la planta baja las recogidas y detalladas en el plano del **ANEXO IV** del presente pliego.

Ez da utziko, inola ere, jendearentzako ordutegian, saltokitik kanpo kaxa solteak, beteak edo hutsak edo beste lanabes eta/edo elementu batzuk edukitzen, pasilloak edo partekatutako eremu publikoa okupatuz. Eremu partekatuetako pasilloak ez dira inolaz ere erabiliko salgaiak edo lanabesak biltegiratzeko. Halaber, ezin izango da apaingarririk edo publizitate-elementurik jarri postuetatik kanpo, berariazko baimenik izan ezean. Espazio partekatuak, jendeak erabiltzekoak, jarduera ludikoak, promozio-jarduerak eta produktuen dastatze-jarduerak egiteko erabili ahal izango dira, baldin eta ez badiote eragiten merkatuaren ohiko funtzionamenduari, ez pertsonen edo ondasunen segurtasunari, eta emakidadunek eta/edo Udalak baimendu edo sustatutakoak badira. Espazio horiek jarduerak egiteko beharrezkoak diren apaingarriekin eta altzariekin hornituko dira aldi baterako, eta errotulazioa eta informazioa (prezioa, produktuen deskribapena…) 18. puntuan jasotako hizkuntza-irizpideak betez eskainiko da.

No se permitirá, en ninguna circunstancia, durante el horario de apertura al público, la existencia de cajas sueltas, llenas o vacías, u otros enseres y/o elementos fuera del puesto de venta, ocupando pasillos o zona común pública. En ningún caso se podrán utilizar los pasillos de las zonas comunes para el almacenamiento de mercancías o enseres. Tampoco se permitirá la ubicación de objetos o elementos decorativos y/o publicitarios fuera de los puestos, salvo autorización expresa. Los espacios comunes, destinados al uso del público en general, podrán utilizarse para el desarrollo de actividades lúdicas, de promoción y de degustación de productos, siempre que no afecten al normal funcionamiento del Mercado ni a la seguridad de personas o bienes y sean autorizadas o promovidas por los/las concesionarios/as y/o por el Ayuntamiento. Dichos espacios podrán ser dotados temporalmente con los elementos decorativos y de mobiliario necesarios para el desarrollo de las actividades. La rotulación e informaciones (precio, descripción de productos…) se ofrecerán cumpliendo los criterios lingüísticos recogidos en el punto 18.

17.4. ZABOR ETA HONDAKINEN GELA

Azokak gela bat du hondakinak biltzeko, eta han kokatuko dira behar diren edukiontziak. Merkatuko berezko hondakinetarako baino ez da erabiliko, edukiontzi horietan jariakinak edo likidoak botatzea

17.4. CUARTO DE RESIDUOS

El Mercado cuenta con una sala en la misma planta destinada al depósito de residuos en la que se ubicarán los preceptivos recipientes contenedores. Se utilizará exclusivamente para los

saihestuz. Betiere, Udalak hondakinen alorrean ezarritako arauak bete beharko dira.

residuos propios del Mercado, evitando verter fluidos o líquidos en los mismos. En todo caso, habrá que ajustarse a las normas que en materia de residuos se impongan desde el Ayuntamiento.

18.- HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK.

18.- CRITERIOS LINGÜISTICOS

Hizkuntza-gaitasuna:

Zerbitzua eman behar dutenek hizkuntza-gaitasuna izan beharko dute herritarrei arreta hizkuntza bietan emateko. Izan ere, herritarrek hizkuntza aukeratzeko duten eskubidea bermatu behar da.

Oharra: Lizitatzaileetako inork ez balitu beteko hizkuntza-gaitasunari eta herritarrekiko harremanei dagozkien betebeharrak, Eibarko Udaleko Euskara Zerbitzua harremanetan jarriko da enpresa edo pertsona adjudikaziodunarekin plan bat egiteko eta bitartekoak jartzeko, hizkuntza-betekizun horiek ahalik eta azkarren bete daitezen.

Competencia lingüística:

Aquellas personas que vayan a dar servicio deberán tener la capacitación lingüística para poder atender a la ciudadanía en las dos lenguas, puesto que se deberá garantizar el derecho de los ciudadanos/as a elegir la lengua.

Nota: Si ninguno de los/las licitadores/as cumpliera con los requisitos de capacitación lingüística y relaciones con la ciudadanía, el Servicio de Euskera del Ayuntamiento de Eibar se pondrá en contacto con la empresa o persona adjudicataria para elaborar un plan y poner los medios para que estos requisitos lingüísticos se cumplan lo antes posible.

Hizkuntza-paisaia:

Errotuluak, oharrak, seinaleak eta bestelako komunikazio orokor guztiak euskaraz jarriko dira mezu ezagun eta ulergarriak direnean.

Ezinezkoa denean, ele bietan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez.

Iragarkiak, abisuak eta gainerako testuak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta argitaratuko dira.

Paisaje lingüístico:

Los rótulos, avisos, señalizaciones y resto de comunicaciones de carácter general se harán en euskera cuando se trate de mensajes conocidos y comprensibles.

Cuando eso no sea posible, se harán de forma bilingüe, dando prioridad al euskera.

Los anuncios, avisos y demás textos a publicar se redactarán y publicarán en euskera o en euskera y castellano.

Erabilera herritarrekin:

Bermatu egin behar dira herritarren hizkuntza-eskubideak.

Herritarrekin lehen hitza euskaraz egingo da.

Herritarrek edozein unetan erabil dezakete hizkuntza aukeratzeko eskubidea.

Herritarrei zuzendutako era guztietako jakinarazpenak eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, ordutegiak, fakturak…) euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Adjudikaziodunak Udaletxeko Euskara Zerbitzura jo ahal izango du erosle eta zerbitzuen erabiltzaileentzako oharrak, errotuluak, kartelak eta gainerako komunikazio orokorrak euskaraz jartzeko aholkua jasotzeko eta zuzentzeko, betiere zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira.

Dokumentazio, publizitate, irudi eta material guztietan sexismorik gabeko hizkera erabili behar da, emakumeen kontrako bereizkeria edo estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak

Uso con la ciudadanía:

Se deben garantizar los derechos lingüísticos de la ciudadanía.

La atención se hará inicialmente en lengua vasca.

La ciudadanía podrá ejercitar en cualquier momento su derecho a la elección de lengua.

Se harán en euskera y castellano todo tipo de notificaciones y comunicaciones dirigidas a la ciudadanía (impresos, notas, horarios, facturas…), dando prioridad al euskera.

El/la adjudicatario/a podrá dirigirse al Servicio de Euskera del Ayuntamiento para obtener asesoramiento para la colocación o corrección de avisos, rótulos, carteles y demás comunicaciones generales en euskera para los/las compradores/as y usuarios/as de los servicios, siempre que se cumplan las condiciones y características del servicio.

Los rótulos, avisos, señalizaciones y resto de comunicaciones de carácter general deberán hacer un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o

saihestu behar dira, eta berdintasunaren aldeko irudiak sustatu behar dira, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta rol eta genero-identitate pluraltasuna sustatzen dutenak.

19.- INGURUMEN-IRIZPIDEAK

Dokumentu edo argitalpen guztiak paper birziklatuan egin beharko dira (kontsumitu ondoren, gutxienez % 65), alde bietan inprimatuta, formatu estandarretan (adibidez, DIN-A4 edo A3), tinta metalizaturik gabe eta, ahal dela, tinta 2rekin.

Paperak I. motako ekoetiketaren batean (Aingeru Urdina, Europako Etiketa Ekologikoa, Beltxarga Zuria edo baliokidea) zehaztutako emisioen eta konposatu kimikoen ingurumen-irizpideak bete beharko ditu.

20. EMAKIDAREN ESKUALDAGARRITASUNA

Emakida eskuz aldatzeko ezinbesteko baldintza da Udalari baimena eskatzea eta, plegu honetan jasotako betebeharrez gain, ondoren adieraziko diren baldintza hauek betetzea:

20.1. EMAKIDEN ESKUALDAGARRITASUNA HERIOTZAGATIK

1.- Heriotza eta testamentuzko ondorengotza gertatuz gero, Kode Zibilaren 807. artikuluan aipatzen diren nahitaezko jaraunsleak titularraren eskubideetan eta betebeharretan subrogatuko dira, oinordeko izaera aitortu eta hurrengo 3 hilabeteetan Udalari aurkeztutako eskaeraren bidez.

2.- Testamenturik gabeko oinordekotzetan, subrogazio bera gertatuko da, eta nahitaezko jaraunsleek beren eskubideen aitorpena eskatu beharko dute titularra hil eta hurrengo 6 hilabeteetan.

3.- Kasu bietan, eskuratzaileak behartuta daude eskualdaketa gauzatu eta hurrengo urte natural osoari dagokion kanonaren urte bat aldez aurretik eta eskualdatze-eskubide gisa ordaintzera.

4.- Jaraunslerik ez balego, edo eskubidearen aitorpena epe barruan eskatuko ez balitz, lizentzia iraungitzat joko da eta Udalaren esku geldituko.

20.2. EMAKIDAK *INTER VIVOS* ESKUALDATZEA

1.- Hurrengo atalean aipatzen diren kasuetan izan ezik, emakidak ezin izango dira *inter vivos* egintzen bidez eskualdatu haien indarraldiko aurreneko urte bietan, emakida-titulua sinatzen denetik hasita.

estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidades de género.

19.- CRITERIOS AMBIENTALES

Cualquier documento o publicación tendrá que hacerse en papel reciclado (mínimo 65% postconsumo), a doble cara, en formatos estándar (p.e. DINA4 o A3), sin tintas metalizadas y preferiblemente a 2 tintas.

El papel deberá cumplir con los criterios ambientales de emisiones y compuestos químicos definidos en alguna ecoetiqueta (Tipo I) como el Ángel Azul, la Etiqueta Ecológica Europea, el Cisne Nórdico o equivalente.

20. TRANSMISIBILIDAD DE LA CONCESIÓN

Para transmitir la concesión será requisito necesario solicitar la autorización del Ayuntamiento y cumplir, además de las obligaciones recogidas en este pliego, los requisitos que se indican a continuación:

20.1. TRANSMISIBILIDAD DE LAS CONCESIONES POR FALLECIMIENTO

1.- En el caso de fallecimiento y sucesión testamentaria, los/las herederos/as forzosos/as contemplados en el artículo 807 Código Civil se subrogarán en los derechos y obligaciones del titular, mediante solicitud presentada al Ayuntamiento en los 3 meses siguientes al reconocimiento de su condición de heredero/a.

2.- En las sucesiones intestadas, se producirá idéntica subrogación, estando obligados/as los/las herederos/as forzosos/as a solicitar el reconocimiento de sus derechos en los 6 meses siguientes al fallecimiento del titular.

3.- En ambos supuestos los/las adquirentes están obligados a pagar de forma previa y en concepto de derecho de traspaso una anualidad del canon correspondiente al año natural completo siguiente a aquél en el que se materialice la transmisión.

4.- De no existir herederos, o no solicitando en plazo el reconocimiento del derecho, se entenderá caducada la licencia quedando a disposición municipal.

20.2. TRANSMISIBILIDAD INTERVIVOS DE LAS CONCESIONES

1.- Salvo en los supuestos contemplados en el apartado siguiente, las concesiones no podrán ser transmitidas por actos intervivos en los 2 primeros años de su vigencia computados desde la firma del título concesional.

Ondoko egoera hauek salbuetsita daude aurreko kasu horretatik:

a) emakidadun titularraren erretiroa.
b) lanean jarduteko gerora sortutako ezintasuna.

Kasu bietan, eskualdaketarik ez badago, saltokia Udalaren eskuetan geratuko da. Horrelakoren bat gertatuz gero, lagatzaileak ez dio ordaindu beharko Udalari inolako eskubide edo tasarik eskualdaketagatik.

2. Urte biko aldia igaro ondoren, titularrek emakidak eskualda ditzakete inter vivos egintzen bidez. Halaber, merkataritza-praktikak berezkoak dituen gaitasun- eta bateragarritasun-baldintzak bete beharko dituzte lagapen-hartzaileek.

3.- Artikulu honen 2. zenbakian aipatzen diren eskualdaketen kasuan, eskualdatze-eskubideagatik Udalari ordaindu beharko zaion zenbatekoa eskualdaketa egiten den urte naturalari dagokion kanonaren urte bikoa izango da.

21. UDALAREN ESKUMENAK

Udalak eskumena du emakida-klausulak interpretatzeko, klausula horietan sor daitezkeen zalantzak ebazteko, eta interes publikoa dela-eta klausula horiek aldatzeko.

Administrazio-bidean emandako ebazpenak berehala beteko dira.

Gainera, Udalak indarrik gabe utzi ahal izango du emakida muga-eguna baino lehen, baldin eta bat-bateko interes publikoko inguruabarrek hala egitea justifikatzen badute, sortutako kalteak ordainduz, edo halakorik gabe, bidezkoa ez bada.

Udalak ahalmena izango du, bere zerbitzu teknikoen bidez, emakidaren xede diren ondasunak, instalazioak eta eraikinak edozein unetan ikuskatzeko.

22. ITZULKETA

Emakidaren epea bukatutakoan, emakidaren xede diren ondasunak Udalari itzuliko zaizkio, eta kontratistak kontratuaren arabera eta kontserbazio- eta funtzionamendu-egoera egokian entregatu beharko ditu.

Itzuli baino hiru hilabete lehenago, Administrazioko organo eskudunak ondasunak hitzartutako baldintzetan emango direla egiaztatzeko xedapenak egingo ditu.

Se excepcionan del supuesto anterior, las siguientes situaciones:

a) jubilación del titular concesionario/a.
b) incapacidad sobrevenida para el ejercicio de la actividad.

En ambos casos, de no producirse transmisión, el puesto quedará a disposición municipal. En el caso de producirse, el/la cedente no deberá abonar al Ayuntamiento derecho o tasa alguna en concepto de transmisión.

2. Pasado el periodo de 2 años, los/las titulares de las concesiones podrán transmitir éstas por actos intervivos. En todo caso, los/las cesionarios/as deberán reunir las condiciones de capacidad y compatibilidad propias de la práctica comercial.

3.- En el caso de las transmisiones contempladas en el número 2 de este artículo, la cuantía que se deberá satisfacer al Ayuntamiento por derecho de traspaso será de dos anualidades completas del canon correspondientes al año natural en el que se materializa la trasmisión.

21. PRERROGATIVAS DEL AYUNTAMIENTO

El Ayuntamiento, ostenta la prerrogativa de interpretar las cláusulas concesionales, resolver las dudas que puedan plantearse en su cumplimiento, así como modificarlas por razón de interés público.

Las correspondientes resoluciones en vía administrativa serán inmediatamente ejecutivas.

Además el Ayuntamiento podrá dejar sin efecto la concesión antes del vencimiento si lo justificaren circunstancias sobrevenidas de interés público, mediante resarcimiento de los daños que causaren, o sin él cuando no procediere.

Estará también facultado el Ayuntamiento, a través de sus servicios técnicos a Inspeccionar en cualquier momento los bienes objeto de concesión, las instalaciones y construcciones.

22. REVERSIÓN

Al término del plazo de la concesión, revertirán al Ayuntamiento los bienes objeto de la concesión, debiendo la concesionaria entregarlos con arreglo al contrato y en el estado de conservación y funcionamiento adecuados.

Durante un período de tiempo anterior a la reversión, que será de tres meses el órgano competente de la Administración adoptará las disposiciones encaminadas a que la entrega de los bienes se verifique en las condiciones convenidas.

23. ZEHAPENAK EZ-BETETZEENGATIK

Adjudikaziodunak kontratuaren betebeharrak betetzen ez baditu edo behar bezala betetzen ez baditu, 10.000 eurora arteko isun hertsagarria ezarriko zaio, larritasun handiagoaren edo txikiagoaren eta berrerortzearen arabera.

Kontratuaren arduradunak proposatuta eta kontratazio-organoaren erabakiz ezarriko dira zehapenak, eta bere garaian eratu zen bermearekin ordaindu ahal izango dira.

Adjudikaziodunari ezartzen zaizkion zigorrek ez dute zerikusirik kontratistaren betebeharrarekin, hau da, kontratua ez-betetzeak Udalari edo Udalari berreskatzeko eskubidea duten hirugarrenei eragiten dizkien kalte eta galeren ordaina emateko betebeharrarekin.

Zehapenak edo hutsegiteak honako sailkapena izango dute: falta arinak, astunak eta oso astunak.

Kontratutik eratorritako obligazioak ez betetzeagatik faltak eginez gero, honako zigor hauek ezarriko dira, aldez aurretik sanzinazio-espedientea izapidetuta:

a) Falta oso astunak: 3.001 eurotik 10.000 eurora artekoak.

b) Falta astunak: 601 eurotik 3.000 eurora artekoak.

c) Falta arinak: 600 eurorainokoak.

23.1. FALTA ARINAK

Falta arinak dira:

1.- Merkatuan jarduten duten gainerako pertsonekin, publikoarekin, Merkatuaren Administrazioko langileekin edo haien mendekoekin eta merkatuan esku hartzen duten agintaritzako funtzionario edo agenteekin zuzenak ez diren jarrerak izatea, ordena hausten ez duten heinean.

2.- Ontziak, salgaiak edo bestelako objektuak baimenik gabeko leku batean jartzea.

3.- Kanpoko jantzi egokiak ez janztea edo txukun eta garbi ez dauden arropak erabiltzea.

4. Merkatuaren Administrazioak emandako jarraibideak ez betetzea.

5.- Udalari pertsona titular emakidadunaren helbide-aldaketaren berri ez ematea.

23. PENALIDADES POR INCUMPLIMIENTO

El incumplimiento por parte de los/as adjudicatarios/as de sus obligaciones contractuales o su cumplimiento defectuoso, conllevará una multa coercitiva de hasta 10.000 €, en función de su mayor o menor gravedad y reincidencia.

Las penalidades se impondrán por acuerdo del órgano de contratación, adoptado a propuesta de la persona responsable del contrato y podrán hacerse efectivas sobre la garantía que, en su caso, se hubiese constituido.

Las penalizaciones que se impongan al adjudicatario son independientes de la obligación del contratista de indemnizar por los daños y perjuicios que su incumplimiento ocasione al Ayuntamiento o a terceros con derecho a repetir contra el Ayuntamiento.

Las infracciones tendrán la calificación de faltas leves, graves y muy graves.

La comisión de faltas por incumplimiento de las obligaciones derivadas del contrato, dará lugar a la imposición de las siguientes penalizaciones, previa instrucción del expediente sancinador.

a) Faltas muy graves: de 3.001 € a 10.000 € cada una.

b) Faltas graves: de 601 € a 3.000 € cada una.

c) Faltas leves: hasta 600 € cada una.

23.1. FALTAS LEVES

Se considerarán faltan leves:

1.- La adopción de actitudes incorrectas con el resto de las personas que operan en el Merado, con el público, con el personal de la Administración del Mercado o dependiente de éste y con los funcionarios o agentes de la autoridad que intervienen en el Mercado, cuando no produzcan alteración del orden.

2.- La colocación de envases, género u otra clase de objetos en lugar no autorizado.

3- No vestir prendas exteriores adecuadas o que no se encuentren en perfecto uso y limpieza.

4.- La inobservancia de las instrucciones dimanantes de la Administración del Mercado.

5.- No comunicar al Ayuntamiento los cambios de domicilio de la persona titular concesionaria.

6.- Saltokia ez irekitzea eta ixtea ezarritako ordutegiaren arabera .

6.- No abrir y cerrar puntualmente el puesto según el horario establecido.

7.- Salmenta edo merkataritza-jarduera saltokitik kanpo egitea, eta salgaiaren izaera edo prezioa ahoz gora oihukatzea, erosleen arreta piztuz.

7.- Realizar la venta o actividad comercial fuera del puesto, así como vocear la naturaleza o precio de la mercancía llamando la atención de los compradores.

8.- Osasun edo Kontsumo Ikuskaritzaren jarraibideak behin eta berriz ez betetzea.

8.- La inobservancia no reiterada de las instrucciones de la Inspección Sanitaria o de Consumo.

9.- Agiri honetako beste sailkapenik aurreikusten ez zaizkien xedapenen hutsegiteak.

9.- Las infracciones a las disposiciones de este pliego para las que no se prevea otra calificación.

10.- Zamalanetarako gunea behar ez bezala oztopatzea.

10.- La obstrucción indebida de la zona limitada de carga y descarga.

23.2. FALTA ASTUNAK

23.2. FALTAS GRAVES

Falta astunak dira:

Se considerarán faltan graves:

1.- Falta arin bat egitea, sei hilabete baino gehiago igaro ez denean falta arinagatik jarritako aurreko zehapena ezarri zenetik.

1.- La comisión de una falta leve cuando no hubiera transcurrido más de seis meses desde la imposición de la anterior sanción por falta leve.

2.- Lokal bat ixtea gehienez 5 egunez jarraian edo elkarren segidakoak ez diren 5 egun gehienez ixtea urte natural bateko epean, Udalaren aldez aurreko baimenik gabe, betiere behar bezala egiaztatutako ezinbesteko arrazoi batengatik izan ez bada.

2.- El cierre de un local durante hasta 5 días consecutivos ó hasta 5 alternos en el periodo de un año sin la previa autorización del Ayuntamiento, siempre que no haya sido motivado por causa de fuerza mayor suficientemente acreditada.

3.- Ordena haustea eragiten duten istiluak:

3.- Los altercados que produzcan alteración del orden.

4.- Ez jasotzea lokalen jardueratik sortutako hondakinak, zaborrak eta balio ez duten objektuak hermetikoki itxita dauden eta garbigarriak diren ontzietan, eta hondakin horiek ez uztea horretarako adierazitako lekuan.

4.- No recoger en recipientes herméticamente cerrados y lavables, los residuos, basuras y objetos inservibles que resulten de la actividad de los locales y no depositarlos en el lugar que a tal efecto se indique.

5.- Lokala eta haren inguruko pasilloaren eremua osasungarritasun-, higiene- eta garbitasun-baldintza egokietan ez edukitzea.

5.- No mantener el local en las debidas condiciones de salubridad e higiene, ni en perfectas condiciones de limpieza la zona del pasillo lindante con aquél.

6.- Udalak berariaz baimendu ez dituen pertsonak establezimenduez arduratzea.

6.- La atención de los establecimientos por personas que no se hallen expresamente autorizadas por el Ayuntamiento,

7.- Jendeari erakusgai dauden salgaiak saltzeari uko egitea, jarrera horretatik jokabide maltzurrak ondorioztatzen badira.

7.- Negarse a expender al público mercancías de las expuestas para su venta, siempre que de tal actitud se deduzca conducta maliciosa.

8.- Salmentako produktuak ez erabiltzea edo kentzea prezioa mantentzearren edo igotzearren.

8.- Inutilizar o retirar productos de la venta para mantener o elevar su precio.

9.- Saltokietan artatzen edo laguntzen duten pertsonak ez egotea sartuta Gizarte Segurantzan dagokien araubidean, indarrean dagoen lan-legeria ez betetzea eta dagokion hitzarmen kolektiboa ez betetzea.

9.- No hallarse incluidas las personas que atiendan o colaboren en los puestos en el régimen que les corresponda de la Seguridad Social, no cumplir con la legislación laboral vigente y no cumplir con el convenio colectivo correspondiente.

10.- Udalaren edo Administrazio Publikoen mendeko langileen jarraibideei nabarmen eta behin eta berriz men ez egitea, haiek ikuskaritza-lanetan dihardutenean.

11.- Titular emakidadunak egindako erosketen egiaztagiriak eta negozioari dagozkion gainerako agiriak legez ezarritako epean ez gordetzea

23.3. FALTA OSO ASTUNAK

Falta oso astunak dira:

1.- Falta astun bat egitea, urtebete baino gehiago igaro ez denean falta astunagatik jarritako aurreko zehapena ezarri zenetik.

2.- Lokal bat ixtea 5 egunez jarraian edo elkarren segidakoak ez diren 5 egunez ixtea urte natural bateko epean, Udalaren aldez aurreko baimenik gabe, betiere behar bezala egiaztatutako ezinbesteko arrazoi batengatik izan ez bada.

3.- Ordena haustea edo edozein eskandalu edo istilu eragitea, pertsonei edo gauzei kalte egin dienean.

4.- Falta oso astuntzat jotzen diren egitateak egitea, kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubideak defendatzen dituzten osasun-arauen arabera.

24. EMAKIDA AZKENTZEA

Emakida azkentzeko arrazoiak hauek dira:

a) Erabiltzailearen edo emakidadunaren heriotza edo gerorako ezgaitasuna edo nortasun juridikoaren iraungipena.

b) Iraungitzea, epea amaitzeagatik.

c) Emakida erreskatatzea —aurretik kalte-ordaina ordainduta—; edo baimena alde batek ezeztatzea.

d) Elkarrekin adostea.

e) Ondasunaren desafektazioa; kasu horretan likidatu egingo da Administrazio Publikoen Ondare Legearen 102 artikuluak aurreikusitakoaren arabera.

f) Kanona bi hilabetez jarraian edo hiru hilabetean ez ordaintzea urtebeteko tartean.

g) Lagapena edo eskualdaketa, emakida Udalaren aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

h) Udal zerbitzu teknikoek instalazioen kontserbazioari buruz emandako jarraibideak behin eta berriz ez betetzea.

10.- El desacato ostensible y reiterado a las instrucciones del Ayuntamiento o del personal dependiente de las Administraciones Públicas en funciones de inspección.

11.- No conservar la documentación justificativa de las compras efectuadas por la persona titular concesionaria, y demás documentación propia del negocio, por el tiempo legalmente obligatorio.

23.3. FALTAS MUY GRAVES

Se considerarán faltas muy graves:

1.- La comisión de una falta grave cuando no hubiera transcurrido más de 1 año desde la imposición de la anterior sanción por falta grave.

2.- El cierre de un local durante 5 días consecutivos ó 5 alternos en el periodo de un año sin la previa autorización del Ayuntamiento, siempre que no haya sido motivado por causa de fuerza mayor suficientemente acreditada.

3.- Las alteraciones del orden o promover cualquier escándalo o altercado cuando se derive o produzca un resultado de daño en las personas o en las cosas.

4.- La comisión de hechos que obtengan la calificación de faltas muy graves de acuerdo con las normas sanitarias y defensoras de los derechos de las persona consumidoras y usuarias que resulten de aplicación.

24. EXTINCIÓN DE LA CONCESIÓN

La concesión se extinguirá por las siguientes causas:

a) Muerte o incapacidad sobrevenida del usuario/a o concesionario/a individual o extinción de la personalidad jurídica.

b) Caducidad por vencimiento del plazo.

c) Rescate de la concesión, previa indemnización, o revocación unilateral de la autorización.

d) Mutuo acuerdo.

e) Desafectación del bien, en cuyo caso se procederá a su liquidación conforme a lo previsto en el artículo 102 de la Ley de patrimonio de las Administraciones Públicas.

f) Falta de pago del canon durante dos meses consecutivos o tres alternos en el plazo de 1 año.

g) Por cesión o traspaso de la concesión sin consentimiento previo y escrito del Ayuntamiento.

h) Por incumplimiento reiterado de las instrucciones dictadas por los Servicios Técnicos Municipales sobre conservación de las instalaciones.

i) Emandako jabari publikoko ondasunak Orri honetan zehazki adierazitakoez aparteko erabileretarako erabiltzea, Udalaren baimenik gabe.

i) Por dedicar los bienes de dominio público concedidos, a usos diferentes de los específicamente señalados en el presente Pliego, sin la autorización del Ayuntamiento.

j) Saltokietan obrak egitea aurretik lizentzia izateke.

j) La realización de obras en los puestos sin previa licencia.

k) Jarduera hilabete baino gehiagoan ez gauzatzea, salbu eta Udalaren berariazko baimena badute.

k) La no prestación de la actividad por plazo superior a 1 mes, salvo autorización municipal expresa.

l) Adjudikaziodunak kontratuz dituen bere betebeharrak behin eta berriz ez betetzea. Behin eta berriz ez betetzetzat hartuko da, emakidadunari, kontratuko betebeharrak ez betetzeagatik, urtebetean 3 zigor ezarri zaizkionean.

l) El incumplimiento reiterado por parte del adjudicatario de sus obligaciones contractuales. Se considerará incumplimiento reiterado cuando se hayan impuesto al concesionario 3 penalidades en un año por incumplimiento de sus obligaciones contractuales.

m) Ondasuna desagertzea edo aprobetxamendua agortzea.

m) Desaparición del bien o agotamiento del aprovechamiento.

Emakidadunak ez duela bete-eta kontratua suntsiarazteko, emakidadunari aldez aurretik ohartarazi beharko zaio, eta kontraesan-espedientea izapidetu.

La resolución por incumplimiento del concesionario requerirá previo apercibimiento al concesionario, y la tramitación de expediente contradictorio.

Ez-betetzeagatiko kontratu-suntsiarazpenak ondorio hauek izango ditu:

La resolución por incumplimiento tendrá los siguientes efectos:

1. Emakidadunari kendu egingo zaio emakida bidez eman zitzaion Udalaren Merkatu Plazako saltokiaren erabilera pribatiboa.

1. Cese del/de la concesionario/a del uso privativo mediante concesión de los puestos del Mercado Municipal de Abastos.

2. Emakidadunak behin betiko bermea galduko du eta Udal Administrazioari eragindako kalte eta galeren kalte-ordaina ordaindu behar du.

2. Pérdida de la garantía definitiva e indemnización por los daños y perjuicios causados a la Administración Municipal.

25. UNITATE IZAPIDEGILEA

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 62.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, espedientearen izapidetzaz eta jarraipenaz arduratuko den arloa UDALAREN EKONOMIA ALORRA izango da.

25. UNIDAD TRAMITADORA

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 62.1 de la LCSP, el área encargada de la tramitación y seguimiento del expediente será el AREA DE ECONOMIA DEL AYUNTAMIENTO.

26. KONFIDENTZIALTASUNA ETA DATUEN TRATAMENDUA.

26.1 Konfidentzialtasuna

Enpresa adjudikaziodunak (datuen tratamenduaren arduradun gisa) eta bertako langileek, zintzotasun- eta konfidentzialtasun-printzipioak betez, eskura dituzten datu pertsonalak segurtasun egokia bermatzeko moduan tratatu behar dituzte, baimenik gabeko edo legez kanpoko tratamenduaren aurkako eta datu horiek galdu, suntsitu edo ustekabean kaltetu izanaren aurkako babesa bermatuz. Horretarako, aukerako neurri teknikoak edo antolakuntzakoak aplikatuko dituzte, Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan eta datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko

26.- CONFIDENCIALIDAD Y TRATAMIENTO DE DATOS

26.1 Confidencialidad

La empresa adjudicataria (como encargada del tratamiento de datos) y su personal en cumplimiento de los principios de integridad y confidencialidad deben tratar los datos personales a los que tengan acceso de forma que garanticen una seguridad adecuada incluida la protección contra el tratamiento no autorizado o ilícito y contra su pérdida, destrucción o daño accidental, mediante la aplicación de medidas técnicas u organizativas apropiadas de conformidad con lo establecido en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal y en el Reglamento 2016/679 relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos

2016/679 Erregelamenduan ezarritakoaren arabera (Dtuak Babesteko Erregelamendu Orokorra). .

personales y a la libre circulación de estos datos (Reglamento general de protección de datos).

Obligazio hori sekretu profesionalaren betebeharraren osagarria da, eta indarrean jarraituko du datuak tratatzeko arduradunarekin (Udala) kontratua amaitu arren.

Esta obligación es complementaria de los deberes de secreto profesional y subsistirá aunque haya finalizado el contrato con el responsable del tratamiento de los datos (Ayuntamiento).

26.2. Datuen tratamendua.

26.2 Tratamiento de Datos

Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoan eta Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean xedatutakoa betez, lizitatzaileei jakinarazten zaie euren eskaintza egitean eta kontratazioa egiteko behar diren gainerako agiriak aurkeztean jasotzen diren datu pertsonalak Udal honek erabiliko dituela kontratua behar bezala mantentzen, betetzen eta kontrolatzen dela bermatzeko.

En cumplimiento de lo dispuesto en la Ley Orgánica de Protección de Datos de Carácter Personal y en el Reglamento general de protección de datos, los licitadores quedan informados de que los datos de carácter personales que, en su caso, sean recogidos a través de la presentación de su oferta y demás documentación necesaria para proceder a la contratación serán tratados por este Ayuntamiento con la finalidad de garantizar el adecuado mantenimiento, cumplimiento y control del desarrollo del contrato.

27. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA

27 RÉGIMEN JURÍDICO DEL CONTRATO

Emakida-kontratu hau plegu honetan ezarritakoaren arabera arautuko da.; eta, hemen aurreikusten ez direnetarako, ondokoak aplikatuko dira: azaroaren 3ko 33/2003 Legea, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa; Toki Erakundeetako Ondasunen Erregelamendua, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuz onartutakoa; eta egon daitezkeen zalantzak eta hutsuneak ebazteko, azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuz onartutako Sektore Publikoko Kontratuen Legeko Testu Bategineko legeriatik ondorioztatutako printzipioak eta haren garapenerako xedapenak. Horren guztiaren osagarritzat administrazio-zuzenbidearen gainerako arauak aplikatuko dira, eta besterik ezean, zuzenbide pribatukoak.

Este contrato de concesión se regirá por lo establecido en este Pliego, y para lo no previsto en él, será de aplicación la Ley 33/2003, de 3 de noviembre, de Patrimonio de las Administraciones Públicas; el Reglamento de Bienes de las Entidades Locales aprobado por Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio y la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014; supletoriamente se aplicarán las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, las normas de derecho privado.

Administrazioarekiko auzien jurisdikzioak izango du eskumena kontratu honen inguruan sortzen diren arazoen berri izateko.

El orden jurisdiccional contencioso-administrativo será el competente para el conocimiento de las cuestiones que se susciten en relación con este contrato.

AINHOA ROMERO GALLARDO - 72586563N

Firmado digitalmente por AINHOA ROMERO GALLARDO - 72586563N
Fecha: 2021.06.14 17:23:53 +02'00'

ENRIQUE ERRASTI GARAICOECHEA

Firmado digitalmente por ENRIQUE ERRASTI GARAICOECHEA
Fecha: 2021.06.14 17:15:30 +02'00'